



© KONTZERTUA

# Ondo egindako lana



ALEXEI VOLODIN PIANO-JOTZAILE ERRUSIARRA.

**MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR**

**A**maitu da aurtengo Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren abonuzikloa eta, benetan, oso aho-zapore ona utzi digu. Azkeneko saio honek denetatik zuen txalokada izugarriak lortzeko: maisulanak, primerako bakarlarria, eta batez ere, ilusioa eta adorea interpretazioetan.

Pianoa jotzen dugunok badakigu Sergei Rakhmaninoven *3. Kontzertua re minorrean* benetako erronka dela edozein bakarlarirentzat. Mota guztietako zailtasunak aurkitzen ditugu partitura honetan: deabrukeria teknikoak, soinu-exijentzia handiak eta, panorama honekin, fraseatze naturala lortzea ia ezinezkoa da. Baina Alexei Volodin piano-jotzaile errusiarrarentzat hori guztia lelokeria izan zen. San Petersburgon jaiotako artista honek sari ugari ditu (hauen artean,

Zuricheko Géza Anda saria lortu zuen 2003an) eta izugarritzko baliabideak ditu honako obra hau aurrera eramateko. Aisetasun osoz salbatu zituen zailtasun teknikoak, uneoro soinu gardena eta haragitsua eskaini zuen, eta, benetan, jario musikal zirraragarria eskaini zuen. Guxitan entzun dugu Rakhmaninoven lan hau hain gardena eta naturala. Bestalde, askotan esan dudana bezala, Gasteizko Principal Antzokiko akustika oso txarra da, baina hala eta guztiz ere, Volodinen soinua biribil eta atsegina egin zitzaigun, akatsgabea. Euskadiko Orkestrak jakin izan zuen bakarlarria inguratzen dotoreziaz, soinu-bolumen egokiak lortuz eta lanaren irakurketa orekatua eginez. Treviñoren meritua, zalantzarik gabe. Volodinek bis pare bat eskaini zuen: Sc-

**RAKHMANINOV ETA  
TXAIKOVSKIREN LANAK  
EUSKADIKO ORKESTRA  
SINFONIKOA/ ZUZENDARIA:  
ROBERT TREVIÑO**

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA  
EKAINAREN 13A

riabinen bi pieza liluragarri, perfektuak.

Saioaren bigarren zatia ez zen makala izan. Txaikovskiren *5. Sinfonia mi minorrean, op. 64* obra ederra da, handia, perfektua, melodiotsua... eta Euskadiko Orkestraren bertsioa mundiala izan zen. Robert Treviñoren eragina oso positiboa izan da azken urteotan. Begi-bistan geratu zen kontzertu honetan. Lortutako homogeneotasuna sokan oso nabaria da, eta metalezko atalaren kalitateak gorantz egin du zalantzarik gabe. Gauzak horrela, sinfonia honen interpretazioa karamelu bat izan zen publikoarentzat. Aipagarria izan zen bigarren zatia, *Andante cantabile con alcuna licenza*, non sarrera zinez ederra atera zen, eta tronparen aktuazioa hobeezina.

Disfrutagarria, bene-benetan. ●